

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2013 /2014 ikasturtea

ELEANITZ PROIEKTUAK DITUEN HUTSUNEAK: IRAKASLEAREN IKUSPEGIA

Egilea: Josune Gonzalez Somocurcio

Zuzendaria: Nerea Badiola Uribe

Leioan, 2014ko Ekainaren 12an

© 2014, Josune González

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	5
1. Marko teorikoa	6
1.1. Aurrekariak	6
1.2. Adin kritikoa	6
1.3. Eleanitz Proiektua	7
1.4. Irakasleen papera	9
2. Helburuak eta hipotesiak	10
3. Metodologia.....	11
4. Lanaren garapena.....	11
4.1. Galdetegia	11
4.1.1. Prozedura.....	11
4.1.2. Irakasle 1	12
4.1.3. Irakasle 2	13
4.2. Behaketa.....	13
4.2.1. Prozedura.....	13
4.2.2. Behaketan ikusitakoa.....	14
4.3. Elkarrizketa	15
4.3.1. Prozedura.....	15
4.3.2. Bi irakasleek elkarrizketan esandakoaren arteko konparaketa.....	15
5. Emaitzak eta ondorioak	17
5.1. Emaitzak	17
5.1.1. HP 1.....	17
5.1.2. HP 2.....	18
5.1.3. HP 3.....	19
5.1.4. HP 4.....	20
5.2. Ondorioak	21
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	24
ERANSKINAK	25
1.eranskina. Profilak zehazteko galderak.....	25
2.eranskina. Galderen erantzunak	26

3.eranskina. Behaketarako eredia.....	29
4.eranskina. Elkarrizketa-gidoia	30
5.eranskina. Elkarrizketen erantzunak	32

**ELEANITZ PROIEKTUAK DITUEN HUTSUNEAK:
IRAKASLEAREN IKUSPEGIA**

Josune Gonzalez Somocurcio

UPV/EHU

Ingelesaren Sarrera Goiztiarrari dagokion Ikastolen Elkarteak sortutako Eleanitz Proiektua aztertu nahi izan da. Proiektuak testuinguru zehatz batean, Iñigo Aritza Ikastolan, teoriatik praktikara izan ditzakeen aldeak zehaztu nahi izan dira. Irakaslea jarri da ikerketaren erdigunean, egunerokotasunean Haur Hezkuntzako mailetan proiektuari loturiko materialak garatzerakoan egon daitezkeen hutsune edo zailtasunak zehaztu asmoz. Horretarako, ikerketa kualitatiboa gauzatu da, tresna ezberdinak erabili direlarik. Horien artean, hutsuneak zehazteko elkarrizketa erdi egituratua esanguratsuenaren izan da. Ikerketa gauzatu ondoren, ikusi da; alde batetik irakasleek materialen balorazio positiboa egiten dutela; bestetik, proiektuari loturiko zailtasunak baino, proiektua ezarri den testuinguruari loturiko baldintzatzaileak direla irakasleen kezka nagusia.

Eleanitz Proiektua, Sarrera Goiztiarra, irakaslea, ingelesa, Haur Hezkuntza

Se ha analizado el Proyecto Eleanitz de la Federación de Ikastolas, el cual hace referencia a la Introducción Temprana del Inglés. Para definir las posibles diferencias de la teoría a la práctica, hemos elegido la Ikastola Iñigo Aritza y a los profesores responsables del proyecto en Infantil. Y concretamente, nos hemos centrado en los materiales y su uso. Nos hemos valido de la investigación cualitativa, utilizando así diferentes herramientas; siendo la entrevista semi-estructurada la más relevante. Tras la investigación, se observa que, por un lado, los profesores valoran positivamente el material; por otro, las dificultades están relacionadas con los elementos del contexto, y no con el propio proyecto.

Proyecto Eleanitz, Introducción Temprana, profesor/a, inglés, Educación Infantil

The Eleanitz Project has been analyzed, a project for the Early Introduction of English, created by the *Ikastolas*. Aiming to define the differences between the theory and praxis in the project, the investigation has been focused on the Iñigo Aritza School and the teachers in charge of the project in Infant levels. And more specifically on the materials created for the project and its use. A qualitative investigation using different tools has been completed. The semi-structured interview has been the most meaningful. As result of the investigation, on the one hand, teachers valued materials positively; and on the other, teachers' difficulties are related to environmental elements, more than to the project itself.

Eleanitz Project, Early Introduction, teacher, English, Infant Education

Sarrera

Egungo gizartean ingelesak duen presentzia eta ospe ona direla eta, eskoletan Ingelesaren Sarrera Goiztiarra ezartzearen aldeko jarrerak ugaritu egin dira. Ingelesaren Sarrera Goiztiarraz ari garenean, Nafarroa eta Euskadiko Autonomi Erkidegoko hainbat eskoletan ingelesa Haur Hezkuntzako goi zikloan hastearen aldeko jarreraz ari gara. Alde batetik, badirudi ez diola Lehen Hizkuntza, H1, edota Bigarren Hizkuntzaren, H2ren ikaskuntzari oztoporik jartzen; eta gainera, onuragarria izan daitekeela azpimarratzen dute hainbatek. Bestetik, ikerketak ugariak ez badira ere, emaitzek ez dute kontrako adierazle garbirik erakusten.

Honela bada, azken hamarkadetan, ingelesaren irakaskuntzarako moldeak aldatuz eta moldatuz joan dira. Ikasleen formaziori begira egindako aldaketak izan dira orokorrean, metodologiari, hasteko adinari, materialari, ordu kopuruari...erreferentzia egin izan diotenak. Baina, zein paper jokutzen dute hemen irakasleek? Nola bizi dute horrelako proiektu berrian lan egitea? Zer nolako eragina dute aldaketek eurengan?

Hari horri jarraiki, ikerketa honen helburu nagusia, Iñigo Aritza Ikastolako “Eleanitz” Proiektuari lotutako Ingelesaren Sarrera Goiztiarrari dagokionean, gelan ari diren irakasleek uste dutena ikertzea da, lortutako informazioa lagungarri izan dadin hobekuntza, proposamen edota eraginkortasunik handiena bilatzeko. Beti ere, irakasleekin elkarlanean eta umeen beharizanei erantzun nahirik.

Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolan “Eleanitz Proiektuak” teoriatik praktikara dituen aldeak aztertze bidean, Haur Hezkuntzako eremuan irakasle izandakoengan zentratutako ikerketa da honakoa. Honen bitartez, “Eleanitz Proiektuak” errealitatean, praktikan dakartzan hutsune edo zailtasunak zehaztu nahi dira; beti ere, proiektuaren barnean lanean egon diren irakasleen ikuspegitik. Ikerketa mugatuagoa izan dadin, Eleanitz Proiektuak Haur Hezkuntzarako diseinaturiko materialaren aniztasunen, honen erabileran eta egokitasunean zentratuz.

1. Marko teorikoa

1.1. Aurrekariak

Europar Batasuneko kide garen heinean, Europa mailan zein esparru internazionalan gehien erabilitako hizkuntza menperatzeak gero eta garrantzia handiagoa hartu du gure eskoletan. Hizkuntza hori, ingelesa da eta atzerriko hizkuntza gisa (H2 edo H3) ikasten da Europako eskola gehienetan.

Duela hainbat hamarkada hasitako prozesua da ingelesaren irakaskuntzarena. Edonola ere, 90.hamarkadaren hasieran aurrerapauso nabarmena eman zen, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza 8 urterekin hastea proposatu zelarik Espainian. Urte gutxira, 1996.urteko apirilean, era esperimentalean, atzerriko hizkuntza Haur Hezkuntzako 2.zikloan irakastea baimendu zen (BOE, 112 zk., 1996ko maiatzaren 8koa). Hala ere, 2000.urtean eman zen aipatutako legearen ezarpen irmoa (BOE, 172zk., 1996ko uztailaren 20koa), zeinetan atzerriko hizkuntza Lehen Hezkuntzako lehen zikloan eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloan irakasten hastea ezartzen den.

Espainiar Estatuak ezarritako legeek aurrera egin ahala, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak Ingelesaren Sarrera Goiztiarra bermatzeko proiektu berritzailea sortu zuen 90eko hamarkada hasieran: Eleanitz Proiektua. Cenozen (2003) hitzetan:

“(…) En algunas comunidades, esta introducción temprana ya se había adelantado hasta educación infantil (a partir de los cuatro años) con anterioridad a la generalización de la Reforma. Así por ejemplo, la introducción temprana del inglés desde educación infantil en varios centros de la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra comenzó por iniciativa de la Federación de Ikastolas en el curso 1991-92” (Cenoz; 2003).

1.2. Adin kritikoa

Ingelesaren Sarrera Goiztiarrerako jarreraren ugaritzea, hau da, H3aren sarrera Haur Hezkuntzako mailetara aurreratzea, “adin kritikoa”-ren inguruko teoriekin lotuta ageri ohi da. Termino horrek, umeen nerbio sistemak hasierako urteetan loturak ezartzeko gaitasunari egiten dio erreferentzia. Honela adierazten dute Pineda eta Fernandezek (1996): “El niño/a nace sin una serie de circuitos nerviosos que va generando a medida que los va necesitando y que este proceso dura apenas la primera infancia”. Edonola ere, honek ez du esan nahi adin honetatik aurrera umeak ikasteko gaitasunik edukiko ez

duenik; baizik eta, “si las posibilidades de desarrollo cerebral se restringen con la edad, el medio, la familia y la escuela serán claves para conseguir el mejor resultado posible”. Edonola ere, adin kritikoaren tartea markatzerako orduan, ezberdintasunak ageri dira. Oro har, jaiotzetik hasi eta nerabezaroraino doan garaia hartu ohi da erreferentzia gisa (Sanchez-Reyes, 2000).

Honela bada, Eleanitz Proiektuaren hasierako pausuetan, premisa honek pisua hartu zuen. Izan ere, ingelesaren sarrera goiztiarrak, H1ean ageri ez diren H2 edo H3ko soinuak garatzen laguntzen baitu; gerora, zailtasunak ugarituko direlarik.

1.3. Eleanitz Proiektua

Aipatu premisatik abiatutako proiektu hau, Haur Hezkuntzako 2.zikloan hasiko zen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu arterako prozesu berritzaile gisa planteatu zen. Ikasketa prozesuaren garapenean zehar, EAE-ko hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania), ondorengo H3-aren (kasu honetan, ingelesa) eta DBH-n sartuko zen H4-aren (frantsesa edo alemana) integrazio orekatu eta planifikatua bermatzea helburu izanik (Arzamendi eta besteak, 2001). Horretarako, Eleanitz Proiektuak, euskara (hizkuntza gutxitua) izango du ardatz, trataera berezia jasoko duelarik. Gaztelania (hizkuntza nagusia) gizartean duen presentzia kontuan hartuta, H3 (ingelesaren) ondoren sartuko da. Sarrera goiztiarra burutzen hasi zen lehen ikasturte horretan, Eleanitzek 8 ikastola biltzen zituen. 2000-01 ikasturterako, 58 ikastolek egin zuten ingelesaren sarrera goiztiarrerako apustua (Arzamendi eta besteak, 2001).

Kontuan hartu beharra dago, gizartean horren hedatutako Ingelesaren Sarrera Goiztiarrak, ez duela bere horretan arrakasta bermatzen. Prozesu hau eraginkorra eta esanguratsua izan dadin, badira kontuan hartu beharreko hainbat alderdi. Izan ere, Nelde-k (1993, 28-30) esan bezala:

“No existe ningún modelo de plurilingüismo con una validez general que pueda ser aplicado a todas las culturas, naciones y bajo cualquier circunstancia. (...) Toda forma de plurilingüismo debería estar concebida para una comunidad lingüística (“tailormade”) corresponder a las necesidades económicas reales y no caer en un coqueteo de moda y ambición absurda dentro de la planificación lingüística”.

Ingelesaren Sarrera Goiztiarra burutzeko, hizkuntzaren jabekuntzan prozesu naturalen ezaugarriak aztertu eta eskolako testuingurura moldatzea ezinbestekotzat jo zuten.

Bideragarri egin ahal izateko, beharrezko materialen sorkuntza, irakasleriaren formazioa eta jarraipena, eta ebaluaketarako tresnak sortzea ezinbesteko izan zelarik. Aipatu legez, Ikastolen Federazioak etapa bakoitzerako beharrezko baliabideak (*Ready for a story!* HH-ko mailetan; *The Adventures of Hocus&Lotus*, *Story Projects* eta *The Explorers* LH-ko mailetan; eta *Subject Projects* DBH-ko mailetan) eta formazioa eskaintzeko apustua egin zuen, ikastoletako partaideak sortzaile eta parte izanik. Guri dagokigun esparrua Haur Hezkuntza izaki, *Ready for a story!* materiala ezagutzea ezinbestekoa da. “Ipuina da ikaskuntzarako egitura eta markoa. Osotara, 16 ipuin dira; bakoitzak besteekiko independentea den istoriotxo txikia kontatzen du, egitura berdina mantenduz” (Jimenez, 2003). Umearen egunerokotasunetik gertu dauden istoriotxoak biltzen dira ipuinetan, esparru ezaguna, konfiantzazkoa eta gertukoa bermatu asmoz. Ipuinak garatzeko ordenan, aldaketak egin daitezke; izan ere, Jimenezek (2003) bere testuan adierazi bezala: “input linguistikoak duen mailaketaz ez da ezer ageri; ez eta ipuin bakoitzerako beharrezko inputik zehatu ere”. Honela bada, irakasleak materiala aurrera ateratzeko orduan, askatasuna izango dute erabileran moldatzeko; baina aldi berean, “zailtasunak izango ditu ebaluatzerakoan, helburu zehatzik ez baita agertzen ipuinetarako irakaslearen gidan” (Jimenez, 2003).

Materialaren inguruko begirada zabaldu ostean, ezinbestekoa da Ingelesaren Sarrera Goiztiarra esanguratsua izango bada, umearen ingurunean prozesua baldintzatuko duten hainbat aldagai kontuan hartzea. Eleanitz Proiektuan begirada zentratzen badugu, badira baldintza gisa zehaztutako oinarri batzuk (Arzamendi eta besteak, 2001):

- Hizkuntzei dagokienez, murgiltze programa bermatuko zaie H1 gaztelania duten ikasleei; H1 euskara dutenei aldiz, mantenu programa. Ingelesak ez duelarik inoiz, euskararen estatusa zalantzan jarriko.
- Ikuspegi soziolinguistikotik, atzerriko hizkuntza ez da inoiz sozialki ikaslearen ama hizkuntza baino indartsuagoa izango.
- Guraso, irakasle, klaustro zein zentroek, boluntarioki eta konpromisoz hartutako erabakia izango da proiektuan parte hartzearena.
- Antolakuntzari dagokionez, proiektua argia, beharrezkoa eta malgua izan behar da. Baliabide materialak, ekonomikoak zein giza baliabideak kontuan hartuko dituen.

- Irakasleria motibatuta, proiektuarekin konprometitua eta beste irakasleekin elkarlanean aritzeko prest agertu beharko da.

Guri dagokiguna, irakasleen esparrua da; bereziki, materialaren erabilgarritasun eta funtzionalitateari lotutako eremuan.

1.4. Irakasleen papera

Proiektu berritzaile bat martxan jarri eta aurrera ateratzerako orduan, Herreras eta San Martík (2012) dioten moduan, ezin zaio soilik metodologia eta material berri bati erreferentzia egin. Arestian aipatu bezala, inguruneak eskaintzen dituen baliabideak, irakasleriaren inplikazioa, proiektuarekiko motibazioa, ekarriko dituen aldaketen gaineko kontzientzia...presente izatea ezinbestekoa izango da. Proiektu berritzaile honen kasuan, besteen kasuan bezala, esparru ezberdinak kontuan hartzea derrigorrezkoa da: alde batetik, curriculumari berari eta materialari loturiko aldaketak emango dira; eta bestetik, irakasleen formazioari, aldaketa pertsonalei zein testuinguruko aldaketei lotutakoak (Herreras eta San Martí, 2012).

Egungo irakasleak, gizartean ematen diren eraldaketa jarraikor eta etengabekoei erantzuteko desafioan egoten dira. Eraldaketa hauek gelaren testuingurura ekartzen baditugu, irakasleek dira beraren errealitatea zehatzen eta sakonen ezagutzen dutenak (Cardona, 2008). Ikerketa hau egiterakoan, Eleanitz Proiektuak irakasleari jartzen dizkion desafio horietan zentratu nahi izan dugu. Izan ere, irakaslea da testuinguruaren arabera programatu eta klasearen nondik norakoak gidatzen dituena; ikasleak eskatzen dizkion aldaketa horiez baliatuko dena, klaseko giro atsegina, motibazioa eta ikasteko eremu egokia bermatzeko (Bono, 2010). Irakasleak klasean paper garrantzitsua hartzen du, testuinguru horren gaineko partaide aktibo delarik. Klasearen garapen horretan motibazioak —bai irakaslearenak, baita ikaslearenak ere—hartuko duen papera, klaseko testuinguruaren beraren baldintzatzaile izango diren elementuen eragina jasoko duelarik.

Eleanitz Proiektuaren baldintzen artean zehaztutako bat ahora ekarriko dut: “Irakasleria motibatuta, proiektuarekin konprometitua eta beste irakasleekin elkarlanean aritzeko prest agertu beharko da” (Arzamendi eta besteak, 2001). Ikastetxe batean proiektu bat aurrera eramaterako orduan, ikas komunitate osoak parte hartu behar lukeela argi dago.

Edonola ere, askotan, proiektuari dagokion esparruko irakasleek hartzen dute lan kargarik handiena.

Ikerketa honen muinean, irakasle horiek kokatu nahi izan ditugu. Azken urteotan, Altsasuko Iñigo Aritza Ikastolan, Eleanitz Proiektua Haur Hezkuntzako mailetan garatzearen ardura duten bi irakasleengan. Honela bada, testuinguru zehatz honetan, Eleanitz Proiektuak teoriatik praktikara dituen aldeak zehaztu nahi izan dira; ikerketa mugatzeko bidean, irakasleen bizipenetara eta bereziki, materialen erabilerara eta hauen egokitasunera begirada zentratuz.

2. Helburuak eta hipotesiak

Marko Teorikoan jasotako informazioa oinarri harturik eta testuinguruari berari dagozkion ezaugarriak kontuan harturik, ikerketa honen helburuak honakoak dira:

- Eleanitz Proiektuak kasu zehatz honetan eta irakasleentzako dituen zailtasunak zehaztea.
- Testuinguru kontuan hartuta, irakasleek dituzten mugak euren artean partekatu eta eztabaidatzea.
- Zailtasun horiez kontzientzia hartu eta izan ditzaketen “konponbideen” inguruko hipotesiak botatzea.
- Irakasleen eguneroko lanerako positiboa izan daitekeen gogoeta proposamena luzatzea.

Honela bada, helburu hauek bete asmoz eta ikerketa bideratu ahal izateko, hainbat hipotesi zehaztu dira:

- 1.- Hipotesia: Eleanitz Proiektuak aldeak ditu teoriatik praktikara.
- 2.- Hipotesia: Materiala erabiltzeko konplexua da; irakasle zein ikasleentzako.
- 3.- Hipotesia: Denbora eta lan karga handia eskatzen du H.H-ko mailetan.
- 4.- Hipotesia: Helburu zehatzak eta input-a zehazturik ez egoteak, oztopoak jartzen dizkio irakasleari.

3. Metodologia

Ikerketa aurrera eraman eta beharrezko informazioa bildu ahal izateko tresna ezberdinak erabili dira. Beharren eta aukeren arabera, ikerketarako hiru baliabide zehaztu dira: lehena, irakasleen profila zehazteko galdeketa idatzia (Ikus. 1.eranskina); bigarrena, Haur Hezkuntzako ikasgeletan egindako grabaketa eta horren gaineko behaketa; eta hirugarrena, irakasleekin proiektuaren hutsuneak zehazteko egindako elkarrizketa (Ikus.4.eta 5.eranskinak).

Aipatu ikerketarako tresna guztiak ere, ikerketa kualitatiborako bideak zabaltze aldera zehaztuak izan dira. Izan ere, galdetegiaren bitartez, ikerketaren erdigunean kokatu diren bi irakasleengandik Eleanitz Proiektuaren inguruko iritzi, esperientzia eta balorazioak jaso nahi izan dira. Horretarako, deskribapenezko datuak biltzen dituen ikerketa kualitatiboa bideratu da: arazoaren parte diren pertsonen hitzek, zein jarrerak adierazitako datuak biltzen dituen. (Taylor eta Bodgan, 1984).

4. Lanaren garapena

4.1. Galdetegia

4.1.1. Prozedura

Irakasle bakoitzaren profila zehazteko galdetegia banatu zaie. Galdetegi honen bidez, bi irakasleen profila zehazteko datu objektibo zein subjektiboak bildu dira: adina, generoa, lan esperientzia, proiektuarekiko jarrera... (Ikus.2.eranskina)

Honela bada, galdetegi hau galdetegi itxi eta irekiaren arteko uztarketa da. Izan ere, lehen galderak zuzenean erantzutekoak izan dira, kualitatiboak eta informazio objektiboa jasotzekoak. Ondorengo galderek ordea, irakasleen iritzi pertsonalean eta esperientzian barneratzeko aukera eskaintzen dute; erantzun luzeagoak, azalpen zabalagoak eta subjektibotasuna nagusitzen delarik.

Irakasleen lana erraztu asmoz, galdeketa banaka eta idatziz jaso izan da. Korreo elektronikoz bidali zaie galdeketa (martxoaren 24an bidalia), epe bat zehaztu eta erantzunak bueltan jaso dira (martxoaren 31n jaso).

Bi irakasleek galdetegiari emandako erantzun osoak, 3. eranskinean daude ikusgai. Profilak modu esanguratsuago batean azaldu asmoz, bien laburpena egin delarik. Hona hemen bi profilak:

4.1.2. Irakasle 1

Irakasle hau 45 urteko emakumea da. Ingeles filologian espezializatutako Magisteritza ikasi zuen, eta 25 urteko esperientzia dauka irakaskuntza arloan.

15 urte daramatza Iñigo Aritza Ikastolan, ingeleseko irakasle gisa. Aurretik, ordezkapen ezberdinak egin izan ditu; baita, hizkuntza akademiatan euskara zein ingeles irakasle gisa aritu ere.

Proiektu komunikatibo ezberdinetan aritu da: AEK-n mintza praktika eskaintzen, EGA atara ahal izateko ikastaro teknikoagoak eskaintzen...Hala ere, Eleanitz Proiektua izendatzen du ezagutu dituen proiektuen arteko komunikatiboena.

Duela 10 urte hasi zen Haur Hezkuntzako ikasgeletan irakasle gisa tarteka aritzen. 6 urte pasa dira Eleanitz Proiektuaren bitartez, Ingelesaren Sarrera Goiztiarraren gidari gisa arit delako.

Eleanitz Proiektuari dagokionez, aitortzen du, lehen aldiz klaustroan eztabaidatzen zalantzak eduki zituztela: “Gure ikasle gehienek ama hizkuntza gaztelera delako, euskara 2.hizkuntza; eta ikastolan hasi eta hurrengo ikasturtean ingelesarekin hasia gehitxoegi izan zitekeelako”. Edonola ere, ordura arte zeharka landutako alderdi komunikatiboaren indarra, hasieratik ekoizteko aukera hori, oso positibotzat hartu zuten. Proiektuarekin aurrera egitea erabaki ondoren, alderdi negatiboen artean taldeen ikasle kopurua egon zen: ume asko egonda, norbanakoaren hitz egiteko aukerak murrizten direlako. Bestalde, irakaslearen lan kargari dagokionean, lerro bakarreko ikastola izanda eta irakasle bakarrak maila ugari hartzen dituela kontuan hartuz, aurrera eramandako lana “behin bakarrik esposatu ahal izateak” nekea sortzen du.

Motibazioa aipatzen du proiektuak arrakasta izatearen giltzarri gisa. Irakaslea motibatuta badago, motibazio hori erraz transmititzen die umei; eta ikasturte edota ziklo amaierarako, umeen mintzaldiak, ekoizpenak entzutea da oparirik politena.

4.1.3. Irakasle 2

Honako hau 29 urteko gizona da. IVEF lehenik, eta Kirol Magisteritza zelakoa, ondoren ikasitakoa. Duela 6 urte sartu zen hezkuntzaren lan mundura, ikastolara zuzenean eta bere arloa den Gorputz Heziketan.

Behinik behin, DBH-ko ikasleekin Gorputz Hezkuntzan jardun izan da 5 urteetan zehar. Aurten ordea, aldaketa urtea izan da: aipatu mailetan Soin Heziketa emateaz gain, Plastika eta Informatika ere lantzen dituelarik.

Eta hau gutxi balitz, Haur Hezkuntzan lehen esperientzia izaten ari da aurtengoa: Haur Hezkuntzakoa eta Ingeleskoa, biak bat egiten dituen Eleanitz Proiektuaren bitartez. Egoera berria eta bera ere berria dela aitortzen du: “Adin hau eta hizkuntza bat irakastea, berria da niretzako eta aldaketa handia orain arte egindakoarekin”. Edonola ere, formazioaren bitartez eta praktikaren bitartez, pixkana aurrera doala dio.

Proiektuarekin lanean hasi aurretik bakarra zekien: ipuinak zirela, “Ready for a story!” delakoak. Umeen adina kontuan hartuta, egoki iruditu zitzaion. Behin lanean hasita ordea, gauzak ziruditen baino konplexuagoa izan dira. Bereziki, ipuina hamaika aldiz errepikatzearena eta “antzezle” papera hartu behar izatearena. Ikasleentzako ere, hainbatetan ipuina errepikatzeak motibazioa jaisten duela nabaritu du; bereziki, saio osoa eserita eman behar duten jarduera horietan.

Emaitza osoak oraindik ezin izan ditu jaso, ikasturteak bere horretan dirauelako; baina, aurrera doazela ikus dezake. Azpimarratzen du, beste irakasle batzuekin hitz eginda, proiektu hau aurrera eramatea nahiko nekagarria dela.

4.2. Behaketa

4.2.1. Prozedura

Ikasgelaren behaketa, McDonough eta Shaw-k (1993) erabilitako behaketa-irizpideetan oinarritutako moldaketa baten bitartez jaso da (Ikus. 1.eranskina). Testu originala, atzerriko hizkuntza maila goragotan irakasten dauden irakasleei zuzendua dago. Edonola ere, hizkuntzen irakaskuntzari eta klaseko behaketari erreferentzia egiten dion testua da.

Liburuan zehaztutako irizpideak oinarritzat harturik, Haur Hezkuntzako ikasgeletan eta testuinguru zehatzean bereziki azpimarragarriak diren hiru alderdietara mugatu da behaketa: ikaslea; jarduera eta gelaren banaketa; eta motibazioa. Ikaslea jarri da behaketaren erdigunean, eta bereziki, klasean zehar hartu duen jarrera.

Behaketari zentzua eman eta borobildu ahal izateko, oharren atalean irakaslearekin iritziak partekatzeko tartea hartu da. Garrantzitsua baita, irakasleak izan dituen impresioak ere biltzea; izan ere, bera da taldea ezagutzen duena. Behaketa apirilaren 15ean egin zen, Haur Hezkuntzako 5 urteko gelan.

4.2.2. Behaketan ikusitakoa

Behaketa bidez jaso eta horren gaineko ondorioztatze sakona egin ondoren, ideiak irakaslearekin partekatu dira. Jarraian aurkezten direnak, behaketaren bitartez jasotako daturik deigarrienak direlarik:

Behaketa honen bitartez, Haur Hezkuntzako 5 urteko umeentzako materialak eduki zitzakeen zailtasunak baztertu egin direla esango daiteke. “Sticker” edo ipuinerako itsaskor delakoen jarduerari dagokionean, behintzat.

Egia da, ordu erdiko saioa besterik ez dela izan; eta jarduera mota bakarra behatzeko aukera izan dela. Baina, umeek saioaren nondik norakoak kontrolatzen dituzte eta prest daude etorriko denari erantzuna emateko. Batzuetan arreta, motibazio eta interes handiarekin; besteetan, ez horrenbeste.

Irakaslearekin hitz egiterakoan, arratsaldeko saioen ezegokitasuna aipatu du: umeak nekatuta datoz, eta ordu erdian gauza ugari egin nahi izateak/behar izateak askotan blokeatu egiten ditu, lagundu beharrean.

4.3. Elkarrizketa

4.3.1. Prozedura

Behaketan ikusitakoari esker eta irakasleekin ikusitakoari buruz izandako elkarrizketa hauetatik ahalik eta informazio esanguratsuena bildu asmoz, erdi-egituratutako galdetegi diseinatu da. Erdi egituratutako galdetegiak egiterakoan, elkarrizketatzaileak gidoi moduko bat darama berarekin. Interesgarri zaizkion gaiak zehaztuak ditu, galdera sorta irekien bitartez. Honela, elkarrizketaren erritmoa, ordena zein galdera zehatzak, egoerara aldatu eta moldatzeko beta duelarik (Ikus. 4. eranskina).

Elkarrizketa diseinatzerako orduan, aurretik egindako galdetegi eta behaketatik jasotako informazioa aintzat hartu da, oinarri gisa erabili delarik. Elkarrizketak, maiatzaren 20 eta 21ean, hurrenez hurren, gauzatu ziren. Jarraian, bi irakasleei egindako elkarrizketetatik jasotako informazioaren konparaketa aurkezten da. Edonola ere, irakasle bakoitzak emandako erantzunen gaineko laburpen banatuak, 5.eranskinean daude ikusgai.

4.3.2. Bi irakasleek elkarrizketan esandakoaren arteko konparaketa

Proiektuak biltzen duen material anitzari dagokionean, irakasleek atsegin eta motibagarri gisa definitzen du: “Motibagarria da umeentzako, gelan dutenetik ezberdina delako. Ipuina oinarrian hartuta, ekintzak “ezaguna zaien errealitate horren” harira proposatzen dira, ziurtasuna ematen dielarik”. Eta irakasleek, anitza bai, baina ipuinarekin oso lotutakoa dela azpimarratzen du: “ipaina lantzeko egokia da; baina, ipuinak lantzeko, horretara oso zuzenduta dago, 6 asteetan ziklo berdina errepikatuz. Baina egia esan, gustatzen zaie”. Irakaslearentzako kudeatzeko erraza da, oso markatuta datorrelako irakaslearen gidan. Zailena, ipuinaren hasieran egoten da: ipuineko esaldiak eta bat datozen keinuak ikasten pasatzen da denborarik handiena.

Irakasle biak bat datoz materialak baimentzen duen mugikortasun eskasean. Orokorrean materialak, ez du ekintza aktibo gehiegirik bideratzen, eta adin honetako umeek, mugitzea eskatzen dute. Edonola ere, ez dute oztopo gisa hartzen; materialak berak, material osagarriak betetzeko aukera eskaintzen duelako.

Errutinei dagokienean, biek eta biek gauza bertsua azpimarratzen dute: “segurtasuneko esparrua dira ikasleentzako; hirugarren hizkuntza da askorentzat ingelesa, eta hasierako erritualek, denbora ematen diote haurrari kokatzeko, etorriko dena irudikatzeko”. Bide beretik, eta kontrako ikuspegian kokatuta, irakasleei ere beta ematen die umeen egoeraz jabetzeko. “Helper” delakoaren papera, oso garrantzitsua da bai ikaslearentzat, baita taldearentzat ere; horrela azaltzen du irakaslelek: “ askotan, kasu gehiago egiten diote laguntzaileari, irakasleari berari baino; errespetatzen dute, badakitelako, gerora beraien txanda izango dela”.

Errutinetan egiten dituzten elkarrizketatxoak ere, tarteka aldatu behar direla azpimarratzen du irakasleek. Izan ere, errepikakortasunak segurtasuna bai, baina batzuetan asperdura ere ekar dezakeela kontuan izan behar da.

Behaketa egin zen egunean gauzatutako jardueraz, eta orokorrean gainontzeko jardueraz, adostasuna erakusten dute bi irakasleek: HH4 urteko eta 5 urtekoen artean ezberdintasun nabarmena dago. Materiala eta jarduerak berdintsuak dira bi ikasturteetarako; eta 4 urtekoentzat traba dena, pegatinekin psikomotrizitate fina, idatzizko hizkuntza, manipulazioa... 5 urterekin guztiz gainditu dute.

Biek ere, jarduera guztien helburu nagusia umeen ekoizpena bideratzea dela aipatu dute. Zaila da kasu honetan, ikasle bakoitzari ordu erdiko saioak direla kontuan harturik, behar duen denbora eskaintzea. Honela, entzule soilean bihurtzeko edo geratzeko arriskua dagoelarik.

Amaierako erritualak, saioaren bukaera markatzen duela arin ikasten dute ikasleek. Dinamika ezberdinak garatzen dituzte, orokorrean, kantak edota mugimendua eskatzen duten ekintzak; saiotik, pilak kargatuta irten daitezten. Irakaslelek honela azaltzen du: “Bitxia izaten da, batzuk saioa bukatzeko irrikatan egoten dira, eta amaierako errituala gogoz hartzen dute. Beraien espazio ezagunera, gela arruntera doazela jakin badakitelako. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa: denbora bat-batean pasa zaie, eta kexatu egiten dira bukaera iritsi delako.”

Orokorrean, Eleanitz Proiektua Haur Hezkuntzan kokatzen dugunean, irakasle biek ez diote proiektuari berari hutsune nabarmenik aurkitzen. Euren lana baldintzatzen duten aspektu ezberdinek (formazioak, esperientziak, kokapenak, denborak, talde bakoitzeko

ikasle kopuruak...), baldintzatzen dute kasu berean proiektuaren erraztasun, eta zailtasun maila.

Honela definitzen du irakasle1ek proiektuaren gauzapena: “Egon behar duzu nahiko dinamika, ordu erdi bakoitzean %100ean, denborarik gal ez dadin eta ikasle bakoitzak ba saioa ongi aprobetxatu dezan”. Eta galdera hau botatzen du airera irakasle2k: “(...) Baina lortzen baduzu motibatzea, ongi pasako dute eta pila ikasiko dute; baina oso fisikoa da. Erreala da egunean 4 saio izerditan eta airea behar duzula bukatzea? Erreala da energia hori guztia izatea egunero?”

Bi irakasleek bat egiten dute proiektuaren gauzapena zaildu egiten duten baldintzatzaileetan: elkarrengandik urrun dauden bi eraikin egotea, oso muturreko mailetan irakasle gisa aritzea eta lerro bakarreko ikastola izateak dakarren lan karga.

5. Emaitzak eta ondorioak

5.1. Emaitzak

Ikerketa honetan zehar erabilitako tresna ezberdinez baliaturik lorturiko informazioa oso esanguratsua izan dela baieztatu daiteke; irakasleek Eleanitz Proiektuari ikusten dizkioten hutsune edo zailtasunak ezagutzera eramane gaituelako. Edonola ere, hasiera batean planteatu ziren hipotesiekin duten lotura edo aldea zehaztea ezinbestekotzat jo da. Jarraian, ikerketan bildutako informazioaren eta abiapuntuan zehaztutako hipotesien arteko alderaketa aurkezten da.

5.1.1. Eleanitz Proiektuak aldeak ditu teoriatik praktikara (HP 1)

Irakasleekin izandako elkarrizketetan, zein gelako behaketan oinarrituta, baieztatu daiteke Eleanitz Proiektuak aldeak dituela teoriatik praktikara. Bi irakasleek, bat egin dute ingurunearen baldintzapenak duen garrantzian; eta aipagarria da, nola ez bakarrik teoriatik praktikara, baizik eta praktika batetik beste praktika batera, egon badaudela baieztatzen dutela. Gelan, momentuko testuinguru zehatz horretan, parte hartzen duten

eta kontrola ezinak diren hainbat alderdik baldintzatzen dute eguneroko jardun hori (Bono; 2010).

Jasotzen duten formaziotik, errealitatera, gelara salto egitean ezberdintasunak nabariak dira bi irakasleentzat. Ezberdintasun hauek, formazioan jasotzen dituzun ereduak euren testuingurura, eta beraz, dituzten baliabideetara ekartzean gauzatzen dira. Honela adierazten du Irakasle1ek: “Lan egin behar duzu dituzun baliabideekin, moldatu beharra duzu; bai zuk, baita ikasleek”. Edonola ere, oso aberasgarri gisa baloratzen dute biek formazioan zehar proiektu berarekin lanean dauden gainerako ikastolen errealitatea ezagutzeko aukera izatea. Horrela adierazten du Irakasle2k: “Besteena ikusita, ez zara bakarrik sentitzen, gauzak ulertzen dituzu eta ideia berriak gehitu”.

Haur Hezkuntzako mailetan, programatuta daramazun hori, birprogramatzera behartuta egon ohi direla onartu dute biek. Jarduerak orokorrean, geldirik egotea bideratutakoak dira, lurrean eserita eta banaka egitekoak. Eta adin hauetan, umeei mugimendua eskatzen dutela aipatu dute irakasle biek. Horregatik, Eleanitz Proiektuaren barneko materialak anitzak izan arren, proiektutik at dauden baliabideak (mugimendu jolasak, zotz egitekoak, kankak, dantzak...) erabili ohi dituzte. Baliabide gehigarrien erabilera honek, Eleanitz Proiektuak dakarren materialaren garapenean oztoporik jartzen ez duela ziurtatzen dute.

Aipatu beharra dago, Ir2k formazioan jasotzen den saioen garapenerako plangintza oso erabilgarritzat jotzen duela. Lehen urtea izanda, euskarri moduan oso probetxugarria izan delarik. Edonola ere, onartzen du, hasiera batean guztiz irmoki plangintza bete nahi horrek, frustrazio puntu bat eragin izan diola. Orain, ordea, plangintzan markatutakoaren eta bere beharren arteko nahasketa egiteko askatasuna hartzen duelarik.

5.1.2. Materiala erabiltzeko konplexua da; irakasle zein ikasleentzako (HP 2)

Materialaren konplexutasunari dagokionean, ezin da esan guztiz asmatu dugunik. Hipotesia hau ezberdin ulertzen baita, ikaslea edo irakaslea erdigunean jarrita. Izan ere, irakasleek ez dute materiala konplexutzat hartzen; hasierako egunetan izaten da zailena. Ipuin bakoitzari loturiko esaldiak, eta horiekin bat egiten dituzten keinuak ikastea izaten

da konplexuena. Baina, materialari dagokionean, erakargarria eta manipulatzeko erraza dela onartu dute ikerketaren erdigunean kokatu diren bi irakasleek. Ipuin berriarekin hastean izaten da lanik handiena: batetik, ipuina ikasteko irakasleen beharragatik; eta bestetik, ume bakoitzari dagokion materiala antolatzeko beharragatik. Ir2k azaltzen duen bezala: “Ume bakoitzak bere karpetatxoa du material guztiarekin. Baina, gazteak dira oraindik material guztiaren kargu egiteko. Horregatik, material guztia karpetetatik atera, eta kutxetan jartzen dut. 1.fitxa guztiak, kutxa batean; 2.fitxa guztiak beste batean...horrela guztiakin”. Formazioan jasotako ideia batetatik abiatuta, 5 urteko gelan, umeekin egiten du materialaren antolaketa, “eurek ere egingo dugunaren kontzientzia har dezaten”.

Ikasleengan zentratzen badugu begirada, berriro ere, ezberdintasuna 4 urteko eta 5 urteko ikasleen artean dago. HH-ko 4 urteko gelan, irailean kurtsoa hasten denean, 3 urteko haurrak egon ohi dira; psikomotrizitate fina, hizkuntza idatzia edota kognitiboki arreta handia eskatzen duten jardueretan, denbora gehiago behar izaten dutelarik. Edonola ere, HH-ko 5 urteko gelara iristerako, materialaren nondik norakoak ongi ezagutzen dituzte eta dinamikak aurrera ateratzeko ez dute zailtasun berezirik erakusten.

5.1.3. Denbora eta lan karga handia eskatzen du HH-ko mailetan (HP 3)

Proiektuak berak dituen hutsuneen inguruan galdetzerakoan, irakasleek ez dute jakin zailtasun edo hutsune berezi bat aipatzen. Biek ere, eskatzen duen denbora eta lan kargan zentratu dira; baina onartu dute, horrek ez duela Eleanitz Proiektuarekin zerikusi zuzenik. Euren lana zailtzen duten hainbat faktorek, ez baitute zerikusi zuzenik proiektuarekin; beste edozein material edo ikasgaietan ere eragina izaten dutelarik.

Lerro bakarreko ikastola izateak, taldeak ume kopuru nahiko handiz osaturik egoteak, bi eraikin ezberdinetan irakasle gisa aritzeak, beste maila eta ikasgai batzuekin aritzeak...denbora eta lan karga hori areagotu egiten du HH-ko mailetan.

Proiektua mardula dela aipatu dute, eta Haur Hezkuntzan bakarrik lanean ariko balira, eramangarriagoa zatekeela onartu ere. Bi irakasleek, Haur Hezkuntzako mailetan jarduteaz gain, Ir1ek proiektuaren gauzapena egiten du LH-ko lehen zikloan; Ir2k, aldiz, DBH-ko mailetan ikasgai ezberdinez arduratzen da proiektuarekin batera. Honekin

batera, jasotako formazioari erreferentzia egin diote bi irakasleek. Proiektua aurrera ateratzeko jasotzen duten formazioa egokitzen eta oso aberasgarritzat jotzen badute ere; beste alderdi batzuetan, hutsuneak ikusten dizkiote euren buruei. Bereziki, Haur Hezkuntzako mailetan umeen beharrezanean erantzuteko baliabide ezari atxiki diotelarik proiektua aurrera ateratzean hainbatetan pairatutako estresa.

5.1.4. Helburu zehatzak eta input-a zehazturik ez egoteak, oztopoak jartzen dizkio irakasleari (HP 4)

Hipotesia honekin, espero ez zen emaitza lortu da. Izan ere, Jimenezek (2003) “Ready for a story!” materialaren gaineko ebaluaketaz idatzitako testuan dionari jarraiki proposatu da hipotesia: “Es difícil evaluar el progreso en el aprendizaje si no se detallan los objetivos generales y específicos (...)”.

Irakasleek kontrakoa diote ordea: proiektua aurrera ateratzeko jaso beharreko formazio saioetan, jarduera bakoitzari dagozkion jarraipenen gidoia ematen zaiela. Beraz, input-a oso zehaztuta dagoela esan daiteke, bereziki ipuinak ahoz eta keinuen bidez lagunduta kontatzeko; baina, baita gainerako jarduerak zuzentzeko. Honela bada, ez da egia inputa zehazturik ez egoteak, oztopoak jartzen dizkiola irakasleari.

Egia da aldi berean, helburu zehatzik ez dela markatzen HH-ko mailetarako; baina, irakasleen hitzetan: “euren ekoizpen momentuak dira ebaluaziorako tarterik egokienak, landutako horren gaineko euren produkzioa”.

Irakaslearen gidan jasotako gidoi horiek jarraitzearekin bat, gerora egingo den feedback horretarako oinarriak markatuta dituztela azpimarratu dute biek. Landutako horren gainean, ikasleen erantzunak neurtzen dituzte, adin hauetan komuna den behaketaren bitartez. Ez dute, beraz, input-a zehazturik ez egotearen sententziarik; ez eta helburu zehatzak markatzeko behar berezirik ere. Irakaslearen gidan proiektuaren inguruan bildutako informazio guztiarekin, oso “intuitiboki” egin baitaiteke umeen garapenaren ebaluazioa.

5.2. Ondorioak

Ikerketa honen bitartez, Eleanitz Proiektuak Haur Hezkuntzako mailetan izan ditzakeen hutsuneen inguruko hausnarketa egitea lortu da. Egoera erreal konkretu bati loturik, eta egoera zehatz honen protagonista diren irakasleen ikuspegitik beti ere.

Haur Hezkuntzan garatzen den Eleanitz Proiektuak teoriatik praktikara aldeak dituela esaten dugunean, testuinguru zehatz honetan dituen aldeez ari gara. Bai materialak berak izan ditzakeen hutsuneez, baita irakasleen egunerokotasunean egon daitezkeen oztopoez ere. Puntu honetan, ikerketaren garapenean zehar, bi esparru ezberdin identifikatu direla esan beharra dago: alde batetik, materialari berari eta ondorioz, proiektuari zuzenean lotutako irakasleen iritzia; eta bestetik, zehaztutako testuinguruan, hau da, Iñigo Aritza Ikastolako Haur Hezkuntzako irakasleen baitan, sortzen diren kanpo baldintzatzaileek duten eragina.

Lehen esparru honetan, bi irakasleen profila oso ezberdina dela kontuan harturik, ezberdintasunak egon dira proiektuarekiko ikuspegietan. Esperientzia gutxien duen eta beste adar batetik datorren irakasleak (Irakasle 2), ez du guztiz beharrezkotzat jotzen Ingelesaren Sarrera Goiztiarra. Nahiz eta, proiektua ahozkotasunera bideratuta egon, gehiegizkoa iruditzen zaio 4 urterekin ingelesa ikasten hasi beharrak. Proiekturako diseinatutako materiala, egokia iruditzen zaio adin hauetako umeentzat; baina, ipuinari oso bideratuta egoteak, errepikakor eta batzuetan, aspergarri egiten duela uste du. Mugikortasuna baimentzen duten ekintzak faltan botatzen ditu, baita bideoak ere. Edonola ere, kontziente da, bere proiektuaren inguruko ikuspegia, erabat baldintzatuta dagoela: esperientzia gutxi izateak, gaiaren inguruko ezagutza eskasak eta beste esparru batetan lanean egonagatik jasotako errutinek, zerikusi zuzena dute iritzi honetan.

Proiektuarekin denbora luzeagoan lanean egondako eta alor honetan espezializatutako irakasleak (Irakasle 1), aldiz, Ingelesaren Sarrera Goiztiarrari dagokion Eleanitz Proiektuaren inguruko balorazio guztiz positiboa egiten du. Erabat komunikatibotzat jotzen du proiektua, umeen ekoizpena zuzendutakoa. Materialeak bide horretan lagungarri izan daitezten diseinatuta daudela uste duelarik: umeen errealitatetik hurbil dauden egoerek, egituren errepikapenek eta jarduera motek, ahozkotasuna dute helburu.

Proiektuarekiko iritzi ezberdinak eduki arren, irakasle biek, materiala erabiltzeko eta kudeatzeko arazorik ez dutela aipatu dute. Zailena, ipuinaren hasieran egoten da eta horren gainean egin beharreko lanketari loturik dator. Biek ere, ezberdintasun nabarmena ikusten dute HH 4 eta HH 5 urteko umeen artean. Materiala manipulatzeko orduan, 4 urteko haurrek zailtasunak izaten dituzte psikomotrizitate finari loturiko, hizkuntza idatziari loturiko eta ordenari loturiko esparruetan. Traba hauek, jardueren dinamika barneratzearekin batera, HH 5 urteko gelan ez dira horren presente egoten. Prozesuaren ebaluaketari dagokionean, behaketa izaten da tresna nagusia. Eta beraz, Jimenezek (2003) bere testuan aipatzen dituen proiektuaren inguruko hutsuneak; hau da, input-a zehazturik ez egotea, eta helburu zehatz zein orokorrak zehazturik ez egotea, ez dira kasu honetan oztopo irakasleen jardunerako. Irakaslearen gidan, jarraitu beharreko gidoia oso ongi markatuta dagoela aipatzen dute biek; eta ebaluatzerakoan, egunerokotasunean gertatzen den horren behaketa dela neurtzeko tresnarik fidagarriena.

Bigarren esparrura mugitzen bagara, hau da, irakasleen egunerokotasunean proiektuaren garapena baldintzatzen duten alderdi horietara, ikastolako testuinguruak zer esan handia du. Proiektua aurrera atera eta erosotasunez lanean aritu ahal izateko, modu batera edo bestera, bi baldintza aipatu dituzte elkarrizketatutako irakasleek. Batetik, proiektuan sinestea, benetan erreala sentitzea eta eraginkor bezala ikustea; bestela, oso zaila delako proiektuak dakarren lan karga guztia aurrera atera eta motibatua egotea. Bestetik, formazioari dagozkion alderdietan, arreta deitu didan zerbait aipatu dute biek: Haur Hezkuntzan, ingelesean eta proiektuari dagokion formazioan “aditua” izateaz gain, antzezpen lanetan ezagutza duen pertsona izan beharko litzateke maila hauetan irakasle. Bide beretik, proiektu honekin eta adin hauetako umeekin lan egiterako orduan, “indar fisikoa” aipatu dute bi irakasleek. Indar fisikoa behar dela diote Haur Hezkuntzako geletan, ordu erdiko saioak behin eta berriz eman ahal izateko. Oso saio konpaktuak izatera derrigortuta daude, eta horrek, fisikoki nekea sortzen diela aitortu dute.

Aurretik aipatu bezala, irakasleek aipatzen dituzten hutsune edo zailtasunen artean, orokorrean, proiektutik haratago dauden baldintzatzaileak ageri dira. Esate baterako, ikastola bi eraikin ezberdinetan banaturik egotea, maila ezberdinetan irakasle gisa aritzea, ikasgai ezberdinak aurrera eramatea, talde bakoitzeko ikasleen kopurua, formazioaren esparruan dituzten hutsuneak, behar bereziko umeekin lanean pertsonarik

ez egotea, lerro bakarreko ikastola izatea, saioak prestatzeko denbora falta, klaustroarekin hartu-eman eskasa.....

Honenbestez, Eleanitz Proiektuak berak materialaren erabilera eta kudeaketan izan zitzakeen hutsuneak zehazteko ikerketa honek, bideak zabaldu dizkigu, gerora etor daitekeen beste ikerketa bat egin ahal izateko. Izan ere, ikerketa honen bidez ikusi da Eleanitz Proiektuak eta bere materialak, ez diola traba berezirik jartzen irakaslearen egunerokotasunari. Proiektuan sinetsita, formazio saioen laguntzaz eta denboraren poderioz, aurrera atera daitekeela onartu baitute irakasle biek. Kontua da, proiektutik at dauden inguruneko baldintzatzaile horiek, nahiz eta zuzenean izan ez, proiektuaren gauzapenean eragina dutela.

Honegatik guztiagatik, argi geratzen da ikerketa hau, gerora etorriko den ikerketa handiago baten hasiera besterik ez dela izan. Kontuan hartu beharra dago, oso kasu txiki eta konkretu bati erreferentzia egiten dion ikerketa lana izanik, ezin direla emaitzak orokortu. Lagina handiagoa balitz, edota ikerketa era sakonagoan egiteko aukera balego (formazioa, saioen prestakuntza, inguruko baldintzatzaileak...), emaitzak hauek beste esperientzia batzuetara hedatu daitezkeen edota emaitza zabalagoak lor daitezkeen frogatu beharko litzateke. Bide honetatik, aberasgarria izango litzateke, ikerketa honetan jasotako emaitzetatik abiatuta, gogoeta sakonago baterako atea zabaltzea. Honela, kasu honetan ikerketaren protagonista eta Eleanitz Proiektua Iñigo Aritza Ikastolan aurrera eramatearen ardura duten ingeleseko espezialista hauek, euren egunerokotasunen dituzten zailtasunak zehaztu eta konponbidea bilatzea izango litzateke hurrengo pausoa. Gogoeta proposamen edota konponbideak bilatzeko bidean, klaustro osoaren parte hartzea gomendagarria izango litzateke. Eta parte hartze hori era objektiboago batean egin asmoz, "Pentsatzeko 6 Txapela" (De Bono, 1985) dinamika gauzatzea proposatzen da. Dinamika honen bitartez, ez da norberaren pentsamoldea adierazten, baizik eta txapel bakoitzak dakarren nortasunarena (ezkorra, positiboa, emozionala, irudimentsua...). Honela, arazo baten inguruko ikuspegi ezberdin ugariagoak jasotzeko aukera izanik. Dinamika honen helburua, ikastolan dituzten baliabideekin, euren kabuz, zehaztu diren zailtasun horiei, irtenbide errealak ematea izango litzatekeelarik.

Oraingoz, eta amaitzeko, esan beharra dago Eleanitz Proiekturako sortutako materialak baino, proiektua gauzatzen den testuinguruko baldintzatzaileak direla irakasleen zailtasunik handiena.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Arzamendi, Jesús; Etxeberria, Juan; Baragorri, Xabier; Elorza, Itziar; Ball, Philip y Lindsay, Diana (2001). *A los 10 años de evaluación de la experiencia "Eleanitz inglés"*. Universidad de País Vasco y Federación Guipuzcoana de Ikastolas.
- Bono, Adriana (2010). Los docentes como engranajes fundamentales en la promoción de la motivación de sus estudiantes. *Revista Iberoamericana de Educación*, 54/2.
- Cenoz, Jasone (2003). *El aprendizaje del inglés desde educación infantil: efectos cognitivos, lingüísticos y afectivos*. Universidad del País Vasco.
- Cardona Andujar, José (2008). Problemática actual del profesorado. Algunas soluciones. *Enseñanza*, 26, 29-56.
- De Bono, Edward (1985). *Six Thinking Hats: An Essential Approach to Business Management*. Little, Brown, & Company.
- Herreras Blanco, M. Luisa y Sanmartí i Puig, Neus (2012). Aplicación de un proyecto curricular de física en contexto (16-18 Años): Valoración de los profesionales implicados. *Enseñanza de las ciencias*, 30(1), 089–102.
- Jiménez Catalán, María (2003). Ready for a story!: materiales para la enseñanza del inglés como L3 en contextos multilingües. *Revista de psicodidáctica*, 15-16, 143-154.
- McDonough, Jo and Shaw, Christopher (1993). *Materials and methods in ELT : a teacher's guide*. Oxford: Blackwell.
- Nelde, P.H. (1993). "Conflictos lingüísticos en la Europa plurilingüe" pp. 28-30 in *I Jornadas internacionales de educación plurilingüe*, Vitoria, Fundacion Gaztelueta.
- Pineda Clavaguera, M. del Carmen y Fernandez Vallejo, G. Esther (1996). Fundamentos teóricos para la introducción de una lengua extranjera en educación infantil. Comunicación presentada en el Congreso de Pamplona, Diciembre.
- Sánchez-Reyes Peñamaría, M. Sonsoles (2000). La influencia de la edad temprana en el proceso de adquisición de la lengua extranjera. *Aula*, 12, 43-53.
- Taylor, Sten J. y Bodgan, Robert (1984). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Barcelona: Paidós.

ERANSKINAK

1.eranskina

PROFILAK ZEHAZTEKO GALDERAK

1. Generoa.

2. Adina.

3. Ikasketak.

4. Esperientzia.

- a. Beste ikastetxe batzuetan/ Ikastolan.

Zein eskoletan, zenbat denbora, zein mailatan, zein ikasgai ematen...

- b. Hizkuntzak irakasten/ Proiektu komunikatibo ezberdinetan.

Hizkuntzak irakasten orokorrean, eta ingelesa irakasten, bereziki. Aurretik egon diren proiektu komunikatibo ezberdinen inguruko aipamen txikiren bat.

- c. Haur Hezkuntzan.

Haur Hezkuntzako ikasgeletan izandako esperientzia.

5. Proiektuarekiko jarrera.

- a. Erabili aurretik.

Proiektua bere horretan ezagutu aurretik, honen inguruan izan dituzuen aurreiritziak, usteak, sentsazioak, jarrerak...

Alde positiboak eta negatiboak; aurreko metodoekin konparaketak...

- b. Erabili ondoren.

Uste zenutenetik, praktikan izan dena: teorian (edo aurreiritzietatik) praktikara egon diren aldeak. Aurreiritziak bete diren, ezustekorik hartu duzuen...

Deigarria edo berezia egin zaizuen edozer aipatu.

6. Esanguratsuak izan daitezkeen beste datu batzuk.

Agian zerbait ahaztu zait edo ez dut kontutan hartu; zuen esku nahi duzuen kontakutzea.

2.eranskina**GALDEREN ERANTZUNAK****IRAKASLE1**

1. Emakumezkoa.
2. 45 urte.
3. Magisteritza (ingeles filologiako espezialitatean)
4. 25 urteko esperientzia irakaskuntzan.
 - a. Iñigo Aritza Ikastolan 15 urte daramazkit. Aurretik ordezkapenak egin izan ditut. Akademia batean ingelesa eta euskara eskolak ematen nituen ikastolan hasi aurretik.
 - b. Euskara eskolak AEK-n ematen genituenean metodologia komunikatiboa zen oso. EGA ateratzeko eskolak ematerakoan, alderdi teknikoagoa izaten du eta mintza praktikarako komunikatiboa. Baina ingelesaren inguruan eskola saiorik komunikatiboenak eleanitz proiektuaren eskutik datoz.
 - c. 10 urte egin ditut HH-n. Proiektu erabat komunikatiboarekin 6 urte daramazkigu (eleanitzen baitan daramazkigunak).
5.
 - a. Ezagutu aurretik gure klaustrokideren artean, orokorrean hartuta, zalantza genuen 3.hizkuntzaren sarrera goiztiarraren inguruan. Gure ikasle gehienen ama hizkuntza gaztelera delako, euskara 2.hizkuntza eta ikastolan hasi eta hurrengo ikasturtean ingelesarekin hastea gehitxoegi izan zitekeelako.
Alde positiboak, hasieratik hasten direla ingelesez ekoizten.
Negatiboak, taldeak oso handiak direnean norberak aukera gutxiago dutela hitz egiteko.
Beste zailtasun bat da, proiektuka egiten dela lan. Beraz irakasleak talde eta maila asko baldin baditu, nahiko neketsua dela. Eta urteek aurrera egin ahala igarri egiten dela...
 - b. Erabili ondoren, proiektuarengan sinesten baduzu eta motibatuta bazaude irakasle gisa, ikasleek asko ikasten dutela eta beraien motibazioa ere oso ona dela. Motibazioak duen garrantzia kontutan hartuta ikaste prozesuan!

6. Plazerra da irakasleontzat hainbeste lan egin ondoren aukera baldin baduzu zikloa amaitzean edota etapa amaitzean nola hitz egiten duten ikusteko, batez ere mintzatzeko alegia.

IRAKASLE2

1. Generoa: gizona
2. Adina: 29
3. Ikasketak: IVEF eta kirol magisteritza
4. Esperientzia: 5 urtez DBH-n eta urte bat HH-n.
 - a. Ikastolan soilik. DBH-n Gorputz Hezkuntza, plastika eta informatika. HH-n ingelesa.
 - b. HH4 eta HH5en ingelesa ematen eleanitz proiektuaren barne. Artigal materiala erabiltzen da. Adin hauetan “Ready for a Story” materiala.
 - c. Hau da nire lehenengo urtea. Egia esan esperientzia gehiegi ez dut. Oraindik hasten ari naizela nabaritzen dut. Adin hau eta hizkuntza bat irakastea berria da niretzako eta aldaketa handia orain arte egindakoarekin.
5. Proiektuarekiko jarrera.
 - a. Erabili aurretik
Ipuinak zirela nekien. Ondo iruditu zitzaidan.
 - b. Erabili ondoren.
Sei ipuin lantzen dira urtean zehar. Bakoitzarekin 6 aste ematen dira. Inolako eszenifikazio grafikorekin hasten da ipuina kontatzen (esaldi bakoitzari keinu bat jarritz eta esaldiak erritmo batekin esaten) eta ondoren irudi grafikoak sartzen dira. Ikasleak marrazkiak egin eta margotzen dituzte, hau aitzaki bezala hartuta ipuineko esaldiak errepikatuzko. Liburuxka bat egiten da ere ipuineko esaldiak dituen. Eta mota ezberdinetako antzerkitxoak egiten dira ikasleekin.
Nire ustez, ikasleei luze egiten zaie ipuin berdina hain denbora luzean. Iruditu zait hasieratik motibazioa jaisten zaiela.
Bestalde, lantzeko proposatzen den moduan, ikasleak saio batzuetan eserita eman behar dute denbora gehiena. Batzuetan luze egiten zaie.
Mugimendua eskatzen duten jarduerak errazago egiten zaizkit aurrera eramatea.
6. Esanguratsuak izan daitezkeen beste datu batzuk.

Material honi dagokionez, antzerki asko eskatzen du. Denborarekin hartzen joaten zaio baina hasieran kostatzen da.

Beste irakasle batzuekin hitz eginda, proiektu hau aurrera eramatea nahiko nekagarria.

3.eranskina

GELAKO BEHAKETA EGITEKO EREDUA:

1. IKASLEA.

Ikaslearen parte hartzea eta erantzunak aztertuko dira. Bakarkako lanetan, bikoteka zein talde handian.

Materialarekiko duten jarreraren zentratuko da behaketa, jardueraren garapen “egokian” baino.

2. JARDUEREN AURKEZPENA ETA KLASEAREN BANAKETA.

Irakasleak eskatzen duenarekiko egokitasuna behatuko da; ikasleak mezua jaso duen ulertu nahirik.

Jarduerak ikasgelan duten jarraikortasun/egokitasuna neurtzen saiatuko da.

3. MOTIBAZIOA / KLASEKO GIROA.

Motibazio berezia sor dezaketen egoerak azpimarratu eta zergatia zehazten saiatuko da.

Aldi berean, ikasgelaren eta saioan zeharreko giroa nolakoa den deskribatuko da (umoretsua, lasai, langilea, alerta, motibazioa, haserrea, aztoratua...). Irakasleari ere galdetuko zaio.

4. OHAR BEREZIAK.

Zerbaitek arreta piztuko balu, hemen zehaztuko litzateke.

4.eranskina

MATERIALEN INGURUKO IRAKASLEEN IRITZIA JASOTZEKO ELKARRIZKETA-GIDOIA

- MATERIALAREN ANIZTASUNA:
 - Nola sentitzen zara materialarekin lan egitean?
 - Nola ikusten dituzu ikasleak?
 - Zein dira azpimarratuko zenituzkeen zailtasun edo hutsuneak?
 - Eta hutsune horiei aurre egiteko konponbideak?
- ERRUTINAK:
 - Irakaslearen papera.
 - “Helper”-aren papera.
 - Taldearen jarrera orokorrean.
- STICKER-EKIN EGINDAKO JARDUERA:
 - Dinamika ulertzen dute?
 - Hizkuntza ulertzen dute?
 - Nolako erantzuna dute?
 - Zein da zure papera?
- AMAIERAKO ERRITUALA:
 - Irakaslearen papera.
 - Ikasleen hizkuntza ekoizpena/ulermena.
- ELEANITZ PROIEKTUA HAUR HEZKUNTZAN (IRAKASLEEN IKUSPEGITIK):
 - Nola ikusten duzu zure burua?
 - Nola ikusten dituzu ikasleak?
 - Zein dira azpimarratuko zenituzkeen zailtasun edo hutsuneak?

- Zein izango lirateke hutsune horiei aurre egiteko konponbideak?

***Kontuan hartu, Formazioa, Saioen Plangintza, Proiektuaren Ebaluaketa...**

5.eranskina**ELKARRIZKETEN ERANTZUNAK****IRAKASLE 1**

- **MATERIALAREN ANIZTASUNA:**

Materiala atsegina eta motibagarria da ikasleentzako. Hizkuntza keinuei lotuta egoteak, hizkuntza bera ulertu eta identifikatzeko aukera eskaintzen die ikasleei.

Irakaslearentzako, ipuin bakoitzeko keinu eta hizkuntza interpretatzen ikasteak, lan handia eskatzen du. Irakaslearen gidan, gidoia eta keinuak oso ongi zehaztuta datoz.

Materiala antzekoa da 4 eta 5 urtekoentzako; 4 urtekoentzako badira konplikatuak diren jarduerak. “Bubbles”-ak, hizkuntza idatzia, pegatinak (psikomotrizitate fina). Normalean, 5 urtetarako dinamika ikasten dute eta errazago manipulatzeko dute.

Motibagarria da umeentzako, gelan dutenetik ezberdina da. Ipuina oinarrian hartuta, ekintzak “ezaguna zaien errealitate horren” harira proposatzen dira, ziurtasuna ematen die.

Material osagarria erabiltzea komeni da: mugimendua baimentzen duten jolas, kanta, erlaxazio jarduerak... hizkuntzarekin lotuta beti ere.

“Ordu erdiko saioak dira, baina beraientzako ordu erdiko saio oso bat geldirik (...), batzuei oso luzea egiten zaie”.

“Zailtasun handiena, proiektu ezberdinekin lanean egonda ere, taldeak handiak direnean, ezin norbanakoarengana ongi iristea da niretzako”. “Ordu erdiko saioak dira, materiala aurrera atera nahi duzu, adin hauetan oso dependenteak dira, eta ezin bazara gehiegi iritsi (...), sentsazioa zapuzketarena da eta ez zara ohitzen, nahi ta ezintasun horretara”.

Ekoiak izan behar dute, eta denek parte hartu behar dute, zaila da guztiei arreta berdina eskaintzea. Irakasleari gelako dinamika oso modu ordenatuan eramatea eskatzen dio.

Ingeleseko gelak asko laguntzen du, ingelesaren esparru gisa hartzen baitute umeek. Komenigarria da gela naturaletik ateratzea.

Ez naiz ohartzen hutsune bat esateko, material zabala da, eta aukera ematen du material osagarri ezberdin ugari sartzeko. Materiala oso ongi kontrolatu behar duzu.

- **ERRUTINAK:**

Errutinak segurizanteak dira. Irailean askotan 3 urte izaten dituzte umeek; ingurune soziolinguistiko erdaldun batetik datoz, euskara arrotza zaie, eta ingelesa are gehiago.

Lehen asteetan, behaketan ibiltzen dira. Irakasleak zer egiten duen behatu eta errepikapenez ohartzen dira. Saioaren egitura barneratzen doaz: hasierako errituala, saioaren muina eta agur bat.

Tarte hau, ikasleak ezagutzeko, egoera neurtzeko balio dio irakasleari. Beraien artean oso garrantzitsua da “helper”-aren papera, eta errespetatu egiten dute. “Are gehiago esango nuke, momentu askotan, arduradun nagusiari kasu gehiago egiten diote irakasleari baino”.

Ikasturtea aurrera doan heinean, eta 5 urtekoekin, elkarrizketak zabaltzen doaz, hizkuntza handitzen; ez dira imitatzaile hutsak.

Irakaslearentzako LH 6.mailatik HH 4 urteko gelara jaisteak, esfortzu kontziente handia eskatzen du.

- **STICKER-EKIN EGINDAKO JARDUERA:**

Jarduera hau iristerako, ipuinaren nondik norakoak oso landuta dituzte. Ipuinari bizitasuna emateko aukera eskaintzen dute “sticker” hauek, eta guztiz sartzen dira.

Hasieran ipuinak ez du soporte bisualik, irudimena bultzatuz. Gerora irudi zehatz batzuk luzatzen zaizkielarik.

Ulermenari dagokionez ez diot arazorik ikusten. Gerta daitekeena da, intuitiboki sormen horri jarraiki, aurreratzeko joera izatea.

“Adin hauetan, ordu erdik eman dezake oso gutxi; baina beste batzuetan, gehiegi ere bada”.

Materiala geldirik egoteko diseinatuta dago, ez du mugimendu aktibo gehiegi bideratzen. Eta askotan, umeek behar dute.

Ekoizpena bultzatu behar da jardueretan, tiraka ibili behar da euren buruko irudimenetan geratu ez daitezen.

- **AMAIERAKO ERRITUALA:**

Bitxia izaten da, batzuk saioa bukatzeko irrikatan egoten dira, eta amaierako errituala gogoz hartzen dute. Beraien espazio ezagunera, gela arruntera doaz. Beste batzuek, aldiz, kontrakoa: denbora bat-batean pasa zaie.

Badakite erritual honekin, saioa bukatu dela. Saioaren egitura oso ongi menperatzen dute.

Espazioak ere baldintzatzen du saioa. Ingeles klasea ez zen hasiera batean ingeles klasea. Lurrean egiten dute saioa, txokoak ere lurrean eginda.

Lan egin behar duzu dituzun baliabideekin, moldatu beharra duzu; bai zuk, baita ikasleek.

- **ELEANITZ PROIEKTUA HAUR HEZKUNTZAN (IRAKASLEEN IKUSPEGITIK):**

Irakasleei dagokionez ikusten dut, ordu erdiko saioak direla, baina oso saio fisikoak dira. Ikastola honetan, bi eraikin egonda eta HH eta LH-n lanean egonda, ordu erdirako zoaz HH-ko geletara, eta %100 eman nahi duzu. Energia behar da horretarako, indar fisikoa.

Maila hauetan, fisikoagoa da, dependenteago dira, mugitzen dira, lasaitasuna ere behar dute, arreta bereganatu behar duzu, motibatuta egon behar dira... “vertigoa” ematen dit umeak aspertzea. Azkar bukatzen dutenek, ez dute beste ezer egiteko aukerarik...

“Egon behar duzu nahiko dinamika, ordu erdi bakoitzean %100ean, denborarik gal ez dadin eta ikasle bakoitzak ba saioa ongi aprobetxatu dezan”

Formazioa ona da, materialari dagokiona. Ikastolen Elkarteko ikastola ezberdinetako irakasleak biltzen dira, egoera berdinean daudenak. Oso formazio praktikoa da. Geletara sartzen gara, beste irakasleen errealitatea ikusi eta nola lan egiten duten ikusi ahal izateko. Irakaslearen perfila, HH-ko espezialista, Ingeleseko espezialista eta proiektuan formatua izan beharko litzake; baina ez da ematen.

Lehen urtean, materialean zentratuta egoten zara; egin behar den hori egiten zentratzen zara, inguruko beste baldintzatzaille batzuetan baino gehiago.

Zuregatik, duzun taldeagatik, gelaren diseinuagatik... moldaketak egin behar dira. "Hau da daukadana, eta honekin nik zer egin dezaket".

Saioen prestakuntzak lan karga handia eskatzen du. Hasiera izaten da zailena, behin ipuinak eta antzerkiak ikasita, hobetzea da.

Pertsona batentzat Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan proiektu hau garatzea, oso lan karga handia da. Lerro bakarreko ikastola da, prestatzen duzuna behin besterik ez da erabiltzen.

Ebaluatzeke modua behaketa da. Baina oso ongi markatuta dator. Ekoizpeneko momentuak dira ebaluaketa egiteko egokienak (role play-ak, kontakizunak...). Irizpideak zehaztuta daude.

Hutsune askorik ez diot ikusten, ez daramagu denbora gehiegirik proiektuarekin lanean. Zailtasunak, ba alde batetik, sinetsi beharra duzula proiektuan; ze ez baduzu sinisten, izugarritzko lana da, eta esan dezakezu, zertarako? Sinisten baduzu, ikusten duzu ikasleek oso txikitatik hitz egiten ikasten dutela.

Nafar Gobernutik pasatzen diren frogetan, LH 4ko ikasleek idatzizko ekoizpenean, ez dute maila alturik ematen. Ez delako proiektu honetan bilatzen, ahozko ekoizpena gidatuago dago.

Irakaslearen lanari begira, ba zuk ordu erdiko saio asko badituzu, zuzendaritzak edo ikas komunitateak ez badu proiektuaren mardultasuna kontuan hartzen, zure ordutegia zehazterakoan, ordu erdiko saioak eginda, imajinatu zenbat saio egin ditzakezun...

Ikastetxeak lan baldintzak bermatu behar ditu. 45 minutu hartzea aholkatzen da, 30 gelan emateko, 15 hurrengoa prestatzeko; guk ez dugu betetzen.

Hasieran, beste metodo batekin lanean ibili bazara, proiektua potentea da. Baina, esku hartzen duzunean, sinisten baduzu, ikusten duzulako ikasleek gehiago eta hobeto ikasten dutela. Bestelako edukiak ingelesaren bitartez ikasten dituzte, errealitatera loturiko egoera asko agertzen direlako.

IRAKASLE 2

- MATERIALAREN ANIZTASUNA:

6 ipuin dira eta ipuin bakoitzarekin material sorta berdina dator. Alde batetik ongi dago, errepikakortasun horrek ziurtasuna ematen dielako; baina, bestalde, 6.ipuinerako adibidez, aspertzen direla somatzen dut.

20 minutu ez dira egoten jarduera bakar bat egiten, aldatzen joan behar zara, bestela luze egiten zaie.

Materiala anitza da, baina bi urteetarako berdina izateak, errepikakor egiten du.

Niretzako kudeatzeko erraza da. Orden kronologiko bat ematen digute, kronograma moduko bat materialaren erabilerarako. Ingeleseko klasean dago materiala, irakasleak antolatzen du. Karpitetan bilduta dator materiala, ikasle bakoitzarentzako bat: irakasleak hartzen du fitxak antolatzearen ardura. Karpeta guztietatik gauzak atera, eta antolatu kutxa ezberdinetan. Batzuetan beraiekin egiten du, HH 5 urteko gelakoekin. Beraiek ikus dezaten zer den egingo dutena.

Oso gutxi ezagutzen dut, baina bideo batzuk faltan botatzen ditut. Gainontzeko ikasgelako dinamika ezagutzen ez duenez, ezin du baloratu.

Niri materiala anitza iruditzen zait, eta ipuina lantzeko egokia da; baina, ipuinak lantzeko, horretara oso zuzenduta dago, 6 asteetan. Baina egia esan, gustatzen zaie.

Denbora datorren urtean hobeto kontrolatuko dut; orain egunero da zerbait berria. Orain, lasaiago nabil, moldatzeko “askatasuna” hartzen dut. Beraiek geldi egotea eta motibatzea kostatzen zait, aldiro egitea.

Lurrean daude, ez dago aulkirik. Aulkiekin bideoak ikusita, ordenatuago daudela badirudi. Lurrean jarrita, ondokoa molestatzen dute, etzan egiten dira, haria galtzen dute...

Ingeleseko klasea oso sinplea da, estruktura aldetik. U moduko itxura, gehi txokoak erosoagoak lirateke lanerako. Ereduak ez daude markatuta. Ingelesarekin erlazionatzen dute gela, baina kalean ikusten dutenean ere ingelesez zuzentzen zaizkio.

- ERRUTINAK:

Umeak kokatzeko ezinbestekoa da. Beraientzako ezaguna den dinamika honekin hasteak, kokatu eta txipa aldatzeko aukera ematen die umei. HH 5 urtekoek egunero aldatzen dute laguntzailearen papera. HH 4 urtekoek asteka aldatzen dute, ohitzeko.

“Helper”-aren papera eta gainontzeko ikaskideen jarrera ezberdina da. Berezia da beraientzako errutina hauetan laguntzaile izatea; batzuk adi-adi egoten dira, beste batzuek ez dute interes handiegirik jartzen.

Euren atentzioa bereganatzen duzu, klasearen hasiera markatzen du.

- STICKER-EKIN EGINDAKO JARDUERA:

Irakaslearen irizpideak jarraitzen dituzte, badakite nola egiten den. Banan-banan goazela badakite, baina egun horretan nabaritu zitzaizen aztoratuta.

Oso ordenean doaz, esan dezakezu zer den, ekoizten dute... Bakoitza bere bolara badoa, ekoizpen hori galtzen da. Erritmoak ezberdinak dira, psikomotrizitate fina oraindik ez dute garatu. Elkarren artean laguntzen dira. Adi egotea lan gehiago da, eta askotan kostatzen zaie.

Hizkuntza erabiltzen dute, esaldi errepikakor horiek esaten ditugunean. Keinuak eta irudiak, hizkuntzarekin erlazionatzen dituzte; gordetzen dituzte.

Baina nik hitz egiten dudanean, pertsonaiek esaten dutena ulertzen dute; baina azalpen luzeagotan sartzen banaiz, bla bla bla da beraientzat.

Kantak ulertzen dituzte. Gehiago gustatzen zaie, dantza bat darama eta abestea gustatzen zaie. Kantak komodin bezala erabiltzen dira askotan, aspertzen daudenean aldaketa egiteko.

Formazioan, abestiak, erritualak, bideoak... eman dizkigute. Mariaje Ordiziko Ikastolakoa. Beste ikastola batzuen esperientzia partekatu... Nik jolasak sartzen ditut.

Zapiaren jolasa egiten dugu, zenbakiak badakizkitez jarraian, baina ez dakite zein den beraien txanda; buruz dakizkitez.

- AMAIERAKO ERRITUALA:

Ekoizpen propiorik ez dute; guretzako ekoizpena, keinu bat egin eta beraien hitza edo esaldia botatzea da. Aurretik ikasitako zerbait, beraien kabuz egiteko.

Ondo dator, lasaitzen dira, badakitez hor bukatzen dela saioa. Pilak kargatzen dituzte.

- ELEANITZ PROIEKTUA HAUR HEZKUNTZAN (IRAKASLEEN IKUSPEGITIK):

Ni ez nator ez HH mundutik, ez Ingelesaren mundutik; beharrezkoa den, irakaslelek esango dizu. Beharrezkoa da 5 urteko ume batek horia ingelesez nola esaten den jakitea?

Gerora hainbeste laguntzen du? Ez dakit... Nik ikusten dut, aurrera begira, txanponak sartzen zabiltzala. Baina beraiek jolastu, esperimentatu, interakzioan ibili nahi dute. Ta zu hor zabiltza, tartean.

Eleanitz agian, gidatuegia da beraien mailetarako. Baina hau esaten duzunean, ordu erdi besterik ez da, jasotzen duzu bueltan.

Ahoskerarekin asko laguntzen du. Beraiek hitza esaten den moduan esaten dute, entzun eta errepikatzeko gai dira. Igual beharrezkoa da, igual gero ez dute hartzen... baina hemen bizi gara!

Zeozer oso berria da niretzako. Nik ikasi behar izan dut pila bat, galdetu... Eta orduan, biak behar dira (HH eta Ingelesa). Hau da, nahiz eta ingelesekoa izan, DBH-n 12 urtekoekin bazaude, lan modu bat edukiko duzu. Eta HHko mundua... Nik uste Haur Hezkuntzako modua beharrezkoa dela, baina ingelesa ez hainbeste. Ahoskera bai oso zehatza izan behar da. Baina ez gara natiboak...

Formazioa oso ona da, oso baliagarria. Nahikoa?... Bitartean izatea, oso ona da; gertatu daitezkeen gauzak, pasa direnak, kontatu zizkiguten. Gelara sartu eta hasieran... Haur Hezkuntzatik bazatoz, badakizu ze mailatan dauden, nola baretu, nola bereganatu... Ni DBH-tik nator, eta oso gogorra egin zitzaidan.

Saioen plangintzak lan asko kendu dit. Gehien bat ipuinaren hasierak. 12 ipuin dira, 4 eta 5 urteko haurrentzat. 12 ipuin keinuekin, esaldiekin...Behin hori ikasita, ez du horrenbeste eskatzen...

Nik behin besterik ez dut egiten prestatzen dudana, ordu erdi batean bukatzen da. Eta gero, Goiko ikastolan, beste gauza batzuk ditut. Ateratzen diozun etekina, oso txikia da... eta asko eskatzen du. Honekin bakarrik baldin bazaude, ez da material zaila; eta prestatu baino, pentsatu, nola egin...

Adin hauetan makina batzuk dira, oso azkar jasotzen dituzte gauzak. Lortu behar duzu haurrak motibatzea, eta... batzuetan bai, eta beste batzuetan ez. Baina lortzen baduzu, motibatzea, ongi pasako dute eta pila ikasiko dute; baina oso fisikoa da. Erreal da egunean 4 saio izerditan eta airea behar duzula bukatzea? Erreal da energia hori guztia izatea egunero?

Formazioa eta esperientzia maila dira nire hutsune nabarmenenak. Bereziki, esperientzia. Ez dugu tutoreekin egoteko denborarik, hasieran saiatu ginen, baina utzi genuen. Noizbehinka elkartzen gara, eta asko eskertzen da eta pila bat lagundu dit; umeak ezagutzen dituzte, nola dabilzan badakite, zer eskatzen dizuten... Hemen mundu guztia dabil presaka, eta dena etxean prestatzen dugu.

Ni ikusi naiz, hori nirea zela, 4 eta 5 urtekoa nirea zen, eta nik eraman behar nuen aurrera. Pixkat bakarrik zentzu horretan. Hasiera oso gogorra izan zen, orain lasaiago, ni ere lasaitu naiz. Ezin da nahi dugun guztia egin, eta onartzen hasi naiz. HH-n gerora programatzen da; aurretik egiten duzuna, umeen menpe dago.

Nik eskatuko nuke formazio gehiago HH- n. Nik hemen, denbora eskatuko nuke. Saioak ordu erdikoak dira, eta eraikin batetik bestera etortzeko 10 minutu nituen; ordu erdiko saioa, 5 minutu...dena jarraian, eta tutorea ez da garaiz etortzen.

45 minutuko saioak bezala hartu beharko lirateke, 30eko saioa umeekin, eta 15 minutu antolatzeko. Baina, hemen ez duzu denbora hori. Behar bereziko umeak egon arren gelan, ez dut laguntzarik eduki gelan. Eta praktiketakoa egon denean, lagundu dit; eta asko nabaritu da.

Iruditu zait orain ikusita, formazioan antzerkilaritzako zerbait ikasi beharko genukeela. Ze proiektuarekin loturiko gauzak kontatzen dizkizute; baina, ez badakizu antzezten zaila da.

Ideala Haur Hezkuntzakoa, Ingelesekoa eta antzerki zerbait egiten badakiena izango litzake. Aldiro egon behar zara beraien arreta deitzen, bereganatzen, berari zuzentzen ari zarela demostratzen.

Hori baldin baduzu, nik uste, lan hau polita dela. Niretzako da irla bat bezala: ateratzen naiz niretik, eta egiten dut. DBH-koekin zaude kontu batzuekin, hona zatoz, eta deskonektatzea oso zaila da. Maila oso muturrekoak dira. Batzuetan denbora ematen dit txipa aldatzeko, beste batzuetan ez.

Klaro, badago jendea ere gustura dagoela honekin e! Seguru beraien iritzia oso ezberdina izango dela; baina niri aurten asko kostatu zait...